

ESKOLATU BEHARRAREN BEHARRAK

Irakaskintzaren sindikatuak dioenez, "leher zorian jar daitezke gauzak ikasturtearen bukaerarako".

Bost miloi eta erdi dabilta EGBko ikasketak egiten. Hoietatik hiru milioi eta erdi estatutaren eskoletan. Beste ikasketetan, berriz, bi milioi. Halere lautiak bat eskolara joan gabe edo oso nolabaiteko eskolatera joanaz omen dabil.

Eskola dohan edo delahde emateko agindua eta ametsa zorren putzuan itoko da, gauzak zuzentzen ez badira. 8.100 milioi banatu dira Estatuarenak ez diren ikasketetan laz, 19 mila gelek bakarrik jaso zuten laguntza hori.800 mila haurrek bakarrik gozatu zuten laguntza horren etekina.

Miloi batek eta gehiagok ez du ezertxo ere jasoko. Iazko ikasketek eta beste bakarren batzuek bakarrik hartuko dute Estatuaren diru laguntza. Tokitan zegok dohan eskolatzeko agindua!

Eta ez gaude berrikerako egunetan. Gero eta garestiago salten dira eskolaliburuak eta ikasgaiak. Ikasketak eta ikasgelak hurrizteak, gaurkotzeak eta egoki jartzeak diru asko darama. Gero eta garestiago jartzen ari dira bizitzeko beharrezkoak diren gauzak. Merke-usai gutxi sumatzen da bazterretan. Gora eta gora ari da bizimodua.

Bestalde lana urritzen ari da. "Ordu-arteak" kendu dituzte.

Gero eta gastu gehiago dakarte etxera eskolakumeek. Gurasoek, berriz, gero eta poltsa zimurragoa dute.

"Leher zoriko" une eta egoera larri honetan aurkitzen gara. Ondoeza egiteko zorian dagoela uste dut diruz urri dabilen edozein guraso eskaltzale. Ondo kostata bidaliko ditu bere haurrek ikastolara. Inor ez dadila, diru faltaz, bere haurra ikastolatik atera beharrean gerta, behintzat.

Horregatik, Z. Argiak izan dezakeen indar guztiz, dei egin nahi genieke euskal Herriko Diputazioa, Udaltze, Banketxe, Aurrezki Kutxa, Lan Kide Aurrezki, Lantegi, Kooperatiba, Eliza eta Dirudun guztiei. Ez dugu uste hoielako inor ordaintzen ari denik Euskal Herriarrekiko duen zorra.

Dirudik gutxi dena duen edonork eman dezake ikastolarentzat urtean mila pezetako bat. Edonork botatzen du horrenbeste, apustu egun batean edo afariaren batean. MBaina diru-eteak, dirudunek, lantegiak eta herriaren zerbitzurako diren erakundeek ez dezatele pentsa beren eginkizuna hamar mila pezetako emanik betetzen dutenik. Erta hamar mila duro emanaz ere.

Ematen den diruaren arabera neurtzen da, diru kuxten giltza eskuan dutenen enskaltzaleasuna. Hitz ederrak, lerdajariorren ipuinak besterik ez dira. Neke gehixagoekin bidali beharko du zenbait langilek bere haurra ikastolara.

Eta ez dezagun ahantz datorren urtean zenbait haurrek bukatuko duela EGBko ikasketak. Datorren urteik BUPko edo FPko ikasketak hasi beharko dituzte.

Erantzunginuz ikaragarria dugu. Egun batez herriak hasi zuten ekintza hau, dezaketenen zabarkeriaz eta ez axolaz hiede etzean amilduko ote da?

Herria ohariturik da. Aitzakiek ez dute balio. Eman lasai, bazezakegu eta. Herriak gogoan izango du zure jokabidea.

BEHI IHARREN GARAIA

Faraonen garaiko gose urte haiek irauin egin dute dirudinez, han eta hemen, lehen eta orain. Milioika eta milioika dira goseak hil dituen gizakiak. Gaur bertan 460 milioi daude goseak oso ahuldurik.

Urte, oso txarrak, ezagutuak gara geu ere. Baina egiazko gosea zer den ez dakigu. Otordu aurretik suma ohi dugun jan-eskeari deitzen diogu gosea. Tripan, zorrik egin zaizkigula, esan ohi dugu otordu tarte luzean jan gabe bagoade.

Gosea mota hori, ordea, osasungarria da. Etxean aspila bete daude kanaren jan-eske baimo gose osasungarriagorik ez da izango. Guk ez dakigu hiltzar jartzen duen gosea zer den. Eta hori da munduan leku askotan dagoen gose mota.

Gaitza etxe atarira heldu arte edo etxe barrura sartu arte ez gara estutzen. Gizonak ez du hauzoan goseak hiltzen ari denarentzat erruki gehiegirik behin ere azaldu. Gilbor beteak ez du besteren urdail hutsak duen minaren berri jakiteko ahalmenik.

Bada, ordea, une honetan buru-hasterik franko. Lurraren bizituriarri agortzen ari dira, lurra antzutzen ari da. Urritzen ari dira janariak. Jendea, berriz, ugaltzen.

Hiru biltzarre egin dira aurtengo

urtean hilabete gutxiren barruan. «Lehengaiak eta hazkundera» zuten aurreneko batzargaiak; «Giza-ugalmena» bigarrenarena; «Munduko janariak» hirugarrenarena.

Diruak ez du ezer balio zer erosi-rik ez baldin badago. Jakina, oraindik ordu dabilta herri aberatsak, zabor lekuetara botatzen dute oraindik lasai janari asko. Jan asko alferrik galtzen da oraindik zenbait lekutan.

Ez da berriketa gerra iskiluetan botatzen dena ere. 45.000 milioi dolar eman ditu hamalau urtetan Mundu Banketeak aurrerapenerako. Dirutza hori hiru hilabetetan botatzen du iskilugintzan.

Arazoi osoz esaten digute behartsu diren herriak: «Zuek hau diozue; ken lurrali lehengaiak, ez zaitzete ugaltze, utz eizuzue barra barra gastatzen. Gure aberastasuna jartzen du arriskuan, zuek gehiegi ugaltzate. Zuek urtean 100 kilo bihi edo aleki jaten duzue bakoitzak, guk 1000. Ez al zarete jabetzen zuek gehiegi ugaltzen bazarate guk 800 edo 700 kilo mesteriek ez dugula izango jateko?».

Milaka tonelada botatzen dira gaurregun itsasora janariaren salneurria merkatu ez daitezen. Honela dago antolatutik mundu txar hau.

ALJERIA: HOGEI URTE

Omasiainduko kasetek («Domusantu» hobeki esana ote?) Azaroaren leheneko urteburua gogorazi digute: orain dela hogei urte xuxenki hasi zen Aljeriako Gudua. Zortzi urte luzetan barrena irauin zuten, sekulako sofrikario eta odol-isurketa; eta, azken ondorioz, Arjelleren askatasuna ekarri zuen 1962an.

Arjeriar arazoaren gorabeherak ez dira Frantziar zeharo ematu, are gutxiago ahaztu; eta, gure oroiaren kamustuen eragarri, artikulu ederrik agertu da hauzoko erresumako aldizkarietan.

1954: F.L.N. BERRIAREN AGIRIA

F.L.N. delakoa (=Front de Libération Nationale) nola sortu zen gogorazi digute aurrenik. Arjeriar abertzale mugimendua norkeiatan eta zatikeriatan ahuldurik eta ezindurik zegoelarik, politika-bideetatik at eta politika-taldeetatik at aurrera jotzea erabaki zuten F.L.N.-ko bederatzit buruzagiek, borta onartu, eta helburu bakartzat «nazio-askatasuna» hartu («la libération nationale» dio frantses itzulpenak).

Prentsari helarazi zitzaion Agiriak ez zuen helburu nagusi honi buruz zalantza izpirik izi: «askatasuna eta ekintza: horra hori gure herria bat egiten duten hitzak... «Irizpide iraultzaileen arabera, etsai bakar bat izango du gure ekintza: kolonialismoa... «Gure berrikuntza-mugimendua, horretara, Nazio-Astakatsuneko Elkarte bat baizik ezin daiteke izan». Beronen barrura «gizarte-maila guztietako aberizaleak sar daitezke, aljeriar huts diren mugimendua eta alderdi guztietako arduradunak sar daitezke, askatasunerako burrukan beste bako berezkunderik gabe parte hartuz». Eta Agiriak helburu nagusitatu hau irakur daitezke: «Nazio-Astakatsuna».

HIZKUNTZAREN ARAZO ALJERIA ASKATU

1962an, Aljeriak bere askatasuna lortu zuenean, hiru hizkuntza mintzatzen ziren batez ere. Frantsesa, jakina, kolonialismoak 130 urtez

sar erazia; aberatsen, jende eskolatuen eta etorleen hizkuntza. Hegoaldeko mendietan, berriz, arabitarak iritsi baino lehenago bezala, orain dela bi mila urte bezala, bereber mintzo ziren bertakoak (arabiztatu ari gehienak). Gainerakoak, azkenik, Aljeriako herri xeha, arabes mintzo.

Arabea erreazioaren eta eskuindarren hizkeratza salatu zuten ezkerkoiak ez ziren faltatu: «il pourrait bien se faire que la langue arabe véhicule des idées et des principes réactionnaires... Mauvras-ek eta Brassillach-ek, ordea, frantsesez izkiriatu omen zituzten beren lanak, eta ez arabez... Zeren-eta, frantsesa ere, beste edozein hizkuntza bezalaxe, eskuindar ideiak azaltzeko eta zabaltzeko tresna izan baitaiteke!!

Aljeriaren arabitarantzak, horre-hamabi urte hauetan. Eta Bumedi- nek borak esan zuenez, la «ez dugu, inoiz handia hartu du azkeneko guk liferentziarik batere egiten arabitarantzaren eta beste mailatara iraultza-helburuen artean». Beti Bumedi- en hitzez esatekotan, arabitarantzak hori «helburu sakratu-zaio aljeriar herriari.

Orain dela ia bost urte. Erresuma-Egunkari Ofiziala arabes argitaratzen da; eta administrazioan sartu ahal izateko, arabes jakin behar da. Frantsesaren ordez arabes nagusi eraztea «l'un des derniers combats de libération nationale» iruditzen zaio aljeriar herriari.

IRAKASKINTZAREN GORABEHARA BATZUK

Irakaskintzaren mailan ageri da garbikiarik, halere, aljeriar abertzaleen bultzada.

Askatasuna lortzean, ia maisurik gabe gertatu zen Aljeria: 700 irakaskale bertan gelditu baziren ere, beste 19.000-ek itasosa gurutzatu eta aldegin egin zuten! 1962an, horretara, problema latza agertu zitzairen aljeriarrei eskolaren mailan.

Artikulu honetan mintzairari berari gogozkiolarik, zein arabes irakatsa eskolan? Liburuetako «arabe batua» urrun baitago etxeko arabes herrikoitik: gurasoek ez dute eskolako arabes «berri» hori konprenitzen.

Hiztegi modernoa, zientzien eta tekniken sailen batez ere, hozten hasia baizik ez zen. Eta, batez ere, nor irakatsiko arabes moderno eta batu horretaz? Zein liburu erabiliz? Kolonialismoaren garaian frantsesa aski baitzen denotarako: baita arabesko titulua ateratzeko ere!

Eztabaida ez zen luzea izan halere, arabitarrek elkarri ulertu behar diote, izkribuz beheren; eta «arabe moderno batu» hori baizik ez da erabiltzen Aljeriako eskolatan.

ZENBAKI BATZUK

Gaur eskoletako 2.600.000 haurrek ikasten dute arabes Aljerian gaindi, 60.000 maisuren gidaritzapean (noiz horrelakorik kolonial-dian?): arabes hutses ari dira lehenengo bi urteetan (6/7 urte), eta erdizka arabes eta frantsesez ondoko lau urteetan (hauarrak 8-9-10-11 urte duelarik).

Lizeoen mailan, berriz, 304.000 ikasle dago; eta jakintza-sail batzuk arabes hutses ematen dira orain dela zenbait urte; kondaira, geografia, erlijioa, eskubidea. Duela hiru urte, 22 lizeo zuden guzti arabitarurik.

Unibertsitatearen mailan, azkenekorik (35.000 ikasle) arabes sartzen hasia da literatura, hizkuntza, kon-

daira, eta beste. Eta, laster omen, Damaskoko Unibertsitatearen bide berberetik, dena azalduko bide da arabes hutses. Maghreb osoko hizkuntza-talde bat ari da lanean bakar-raskan, hiztegiaren arazoak behin eta bitrako erabakitzeke.

ETA BEREBERTARRAK ZER?


Aljeriako Hegoaldean (eta Aljeri- atik kanpora ere bai: Marroko ba- karrik 4.500.000 lagun) berebertar- rik bizi dira. Zenbat ote Aljerian? Iturrien arabera, % 18, % 20, % 22; eta, nolabahi ere, hiru miloitatik gora.

Frantziaren kontra hain hogoriki burukatu ziren berebertarrak, zer bilakatu ote dira Aljeria askatuan?

Datozen berriak ez dira oso poz- garriak. Aljeriako arabitarrek, hain luza ukaturik eta indarka frantses- turik, orain ukatu egiten dituzte berek ere berebertarrak! Zoritxa- rrez egia hutsa idatzi du berriz ere Albert Memmi argiak: «Europako ezkerter sail baten gogoetan ara- bera, arabitarrek zapaldu zauden; berriz, ezin omen zitzekeen beren aldetik ere zapaltzaile izan edo bi- leska... Hots, dio Memmi: «On peut fort bien, contrairement à ce que pense —si pensée il y a— une partie de la gauche européen- ne, se libérer de l'oppression et se transformer en oppresseur à son tour, par exemple occiremer ses propres minorités». (A. Memmi, Juifs et Arabes, 58.orr.).

Etni-zapalketa ez baita inolaz ere papagaio batzuek (papagaio ala zo- zo ote?) hortik barra-barra entzun arazi nahi luketena.

LARRESORO



ARGIA

Zuzendaria:
MIREN JONE AZURZA

ARISTEGIETA

Nafarroa, Kantauri eta Ara- goiko Kaputxinoek argitara- ta, (Kale Nagusia, 50-1. Bur- lada -IRUINEA).

Donostia: Okendo, 22
Tel. 41 95 88

ARPIDE SARIA:

Barruan	350 pezeta
Korreo batasune- tako herrietan	400 pezeta
Aterrietako bes- te herrietan	420 pezeta
Airez	Aldez aurre- tik galdetu

Salmenta (ale bakoitza) **800**

Moldiztegia eta Idazkolaria:
«Gráficas Navasal»
A. Adoain, 1. IRUINEA
D.L.: NA. 80-1963

IRASTORTZA